

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018/2019 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018/2019

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe Kosta BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Batxilergoa	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	Batxilergoa 1
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	ANATOMIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Biologia eta geologia, Kultura Zientifikoa, Historia.		
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none">1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia2. Matematikarako konpetentzia3. Zientziarako konpetentzia4. Teknologiarako konpetentzia5. Konpetentzia sozial eta zibikoa6. Arterako konpetentzia7. Konpetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Begoña Bárcena Arrizabalaga	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018/2019

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

<i>objetivos</i>	<i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Giza gorputzaren batasun estrukturala eta funtzionala haren elementuen bidez interpretatzea, antolaketa-mailak eta bizi-funtzio nagusiak identifikatuz.</p> <p>2. Nutrizio-prozesuak deskribatzea, bakoitzaren egiturak eta jardun fisikoarekin eta osasunarekin duten lotura azalduz.</p> <p>3. Bihotz-biriketako sistemak gorputzaren bidezko arte-jardueren errendimenduan duen zerikusia identifikatzea, sistema horien arteko harremana ezagutuz.</p>	<ul style="list-style-type: none">● Giza gorputzaren antolaketa-mailak bereizten ditu.● Giza gorputzaren antolaketa orokorra deskribatzen du, diagramak eta ereduak erabiliz.● Gizakiaren bizi-funtzioak identifikatzen ditu eta ezaugarri garrantzitsuenak adierazten ditu.● Eredu anatomikoetan edo beste adierazpen-tresna batzuetan organoak eta sistemak aurkitzen ditu.● Organoak eta sistemak dagozkien funtzioekin erlazionatzen eta sailkatzen ditu.● Organo eta sistema nagusien konfigurazioa deskribatzen du.● Digestio-, xurgatze- eta irazte-prozesuetan parte hartzen duten aparatuen eta organoen egiturak identifikatzen ditu, eta etapa bakoitzean dagozkien funtzioekin lotzen ditu.● Digestioan, elikagaien eta mantenugaien xurgatzean eta iraztean parte hartzen duten prozesuak bereizten ditu, eta haietako bakoitzean agertzen diren egitura organikoekin lotzen ditu.● Mantenugai energetikoak eta ez-energetikoak bereizten ditu, eta dieta osasuntsu eta orekatuarekin erlazionatzen ditu.● Biriken egitura eta funtzioa deskribatzen ditu, eta haietan gertatzen den gas-trukea eta biriken aireztapenaren dinamika zehazten ditu.● Sistema kardiobaskularraren egitura eta funtzioa deskribatzen ditu, eta osagai bakoitzaren erregulazioa eta integrazioa azaltzen ditu.● Bihotz-taupada eta biriken bolumena eta edukiera denetariko arte-jardunetako jarduera fisikoarekin lotzen ditu.

<p>4. Bihotz-biriketako sistema osasunarekin lotzea, bihotz-arnasako sistemarentzat eta fonazio-aparatuarentzat osasungarriak diren ohiturak ezagutz.</p>	<ul style="list-style-type: none">● Laborategian esperimentuak eta bizi-konstanteen neurketa egitea; adibidez, pultsua, arnasketa eta tentsio arteriala.● Bihotz-biriketako sistemari eragiten dioten patologia nagusiei buruzko lan monografikoren bat egiten du, eta patologiak kausa ohikoenekin eta arte-jardunetan dituzten eraginekin lotzen ditu.● Fonazio-aparatuari eragiten dioten patologia nagusiei buruz argudiatzen du eta ohikoenak diren kausekin erlazionatzen ditu.● Bihotz- eta arnas sistemak zaindu beharra arrazoitzen du.
<p>5. Sistema neuroendokrinoak jardun fisikoan duen zeregina identifikatzea, giza organismoaren sistema guztien arteko harremana ezagutz.</p>	<ul style="list-style-type: none">● Giza gorputzaren jardueraren kontrolean eta erregulazioan parte hartzen duten sistemen egitura eta funtzioa deskribatzen du, eta haien arteko lotura ezartzen du.● Higidura erreflexuen eta borondatezkoen arteko aldeak bereizten ditu, eta haietan parte hartzen duten nerbio-egiturekin lotzen ditu.● Erregulazio-sistemaren fisiologia interpretatzen du, eta hura osatzen duten egituren arteko interakzioa eta arte-jardunen gauzatzea adierazten ditu.
<p>6. Gizakiaren lokomozio-sistemaren egitura eta funtzionamendua deskribatzea, horretarako aplikatuz anatomiaren oinarri funtzionalak, fisiologia muskularra eta biomekanikaren oinarriak.</p>	<ul style="list-style-type: none">● Jarduera fisikoan zeregin garrantzitsua duten hormonon funtzioa deskribatzen du.● Uraren eta gatzen termorregulazio-eta erregulazio-prozesua aztertzen du.● Emakumeen eta gizonen ugaltze-aparatuen zati nagusiak zerrendatzen ditu.● Sexu-hormona batzuen ekintza hezur-eta muskulu-sistema zaintzeko zereginarekin erlazionatzen du.● Hezur-sistemaren egitura eta funtzioa deskribatzen ditu, eta giza gorputzaren mugikortasunarekin erlazionatzen du.

<p>7. Gorputzaren jarrerako, jarduerak egiteko eta entrenatzeko ohitura onak identifikatzea, osasunean duten eraginarekin lotuz.</p>	<ul style="list-style-type: none">● Hezur mota identifikatu eta betetzen duen funtzioarekin lotzen du.● Artikulazio motak bereizten ditu eta dagokien mugikortasunarekin erlazionatzen ditu.● Muskulu-sistemaren egitura, fisiologia eta funtzioa deskribatzen ditu, eta lokomozio-sistemaren zati aktibo den aldetik duen funtzionaltasuna identifikatzen du.● Muskulu motak bereizten ditu eta betetzen duten funtzioarekin erlazionatzen ditu.● Zenbait higiduratan parte hartzen duten hezur, artikulazio eta muskulu nagusiak identifikatzen ditu.● Jarrera desegokitik eratorritako asaldura garrantzitsuenak identifikatzen ditu eta alternatiba osasungarriak proposatzen ditu.● Lokomozio-sistemarekin lotutako patologia eta lesio nagusiak identifikatzen ditu, eta haien kausa nagusiak justifikatzen ditu.
---	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1go. EBALUAZIOA: (36 saio inguru)

- LISERI APARATUA
- ARNAS APARATUA
- ZIRKULAZIO APARATUA

2. EBALUAZIOA: (36 saio inguru)

- IRAIZTE APARATUA
 - NERBIO SISTEMA
 - SISTEMA ENDOKRINOA
- Arazo egoera : “Gaixotasun neurodegeneratiboak “

3. EBALUAZIOA (36 saio inguru)

- LOKOMOZIO APARATUA
- ZENTZUMEN ORGANOAK
- UGAL APARATUA

Arazo egoera: “Gustatuko al litzaizuke zure seme edo alabaren genoma ezagutzea?

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

METODOLOGIA OROKORRA

Gai guztietan erabiliko den sistema bera izango da. Hasteko, aparatu edo sistemaren anatomia aztertuko dira eta anatomia ikusi ahala fisiologia deskribatuko da. Ondoren, gaixotasun arruntenak zehaztuko dira.

Metodologia aktiboa eta parte hartzekoa izango da. Irakasleak azalpen teorikoak emango ditu berak prestatutako apunteen bidez (eta beti aurkezpenen bidez).

Ikasleek aurkezpenak egingo dituzte eta baita laborategiko praktikak ere, hala nola:

* Mikroskopia erabiltzea.

* Gizakion aho-mukosaren zelula epitelialaren lagina prestatzea.

*Tentsio arteriala neurtzea

*Fehling erreakzioa

*Almidoiaren tindaketa

*Xaboiaren fabrikazioa

*Proteinen desnaturalizazioa

*Bihotz baten disezioa

*Giltzurrun baten disezioa

*Ehunaren behaketa

BALIABIDEAK

Baliabide analogikoak

Irakasleak osatutako apunteak erabiliko dira eta eskuragarri izando dituzte irakasleak prestatutako power pointak. Oso inportanteak izango dira bereziki irudi anatomikoak ikasteko.

Klaseak laborategia duen ikasgela batean ematen direnez hor izango ditugu beharrezkoak diren erreaktiboak, mikroskopiak...

Baliabide digitalak

Institutuko web orrialdean apunteak eta diapositibak agertzen dira.

- Google Docs, Google calendar, Youtube-ko bideoak.
- Classroom-ean material osagarria kokatzen da.
- Formularioak

Arazo -egoera “gaixotasun neurodegeneratiboak “ eta “ Gustatuko al litzaizuke zure seme edo alabaren genoma ezagutzea?” izango dira.

Agenda 21: Kontsumoaren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Hezkidetzaren (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

Irakurketa plana: Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektua adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzeko).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

Bizikasi : Arlokoekintzetan hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Ebaluazio bakoitzean gai bakoitzeko idatzizko azterketa bana burutuko da. Egindako azterketa guztien batz bestekoa egiteko azterketetan atera beharreko gutxieneko nota 3,5 izan beharko da. Ebaluazio bakoitzean errekerazio azterketa bat burutuko da, atal guztiekin. Ebaluazioko nota lortzeko honako irizpideak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Egindako azterketa guztien batz besteko nota. (%80) ➤ Laborategian egindako praktikak eta txostena eta klasean proposatutako lanak (%10) ➤ Klaseko jarrera, interesa, etxerako lanak, parte hartzea egin behar dute, eta ez egiteak eragina izango du notan. (%10) 	<p>a) Azterketa idatzia (%80) Kontrolatan zuzenketan hainbat puntu kontuan hartuko dira hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galderen garapenaren planteamenduaren eta justifikazioaren zuzentasuna. - Oinarrizko kontzeptuen azalpena eta haien aplikazio zuzena. - Hizkuntza zientifikoa erabiltzea. <p>Batezbestekoa egiteko azterketaren nota 3,5 izango da .</p> <p>b) Proposatutako lanak (%10)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Aurkezpenak ● Praktika ,txostenak ,ariketak. ● Beste lan batzuk. <p>c) Klaseko jarrera (%10)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Materiala ekartzea - Puntualtasuna - Klasean parte aktiboa hartzea - Elkarbizitzarako arauak errespetatzea <p>Media egiteko a , b, eta c-en notak gaitituak egon behar dira.</p> <p>Ebaluazio batean, justifikatu gabeko etortze faltak %20ra heltzen badira, ikasleak, ebaluazio jarraia izateko eskubidea galduko du eta berreskurapen frogetara aurkeztean, ebaluatuko da.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekerazio-sistema...].</p>	

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

ERREKUPERAZIO SISTEMA

1. Ebaluaketa bakoitzaren ostean berreskurapen azterketa egingo da gaintitu ahal izateko. Azterketa honetan ataleko gai guztiak sartzen dira. Nota gaintitzeko **5** izango da.
2. Ohiko deialdian berriro egingo da berreskurapen azterketa non ikasle bakoitzak gaintitu ez dituen ebaluazioak berreskuratzeko aukera izango du.
3. Ez gai bada ohiko deialdian, ez-ohikoan ikasgai osoko azterketa egingo da.

Pendienteak, pendienteztako ohiko azterketa gaintitu (5puntu 10etik).Kurtsoan zehar. Edo ekainean egingo den pendienteentzako aparteko azterketa gaintitzea

OHARRAK / OBSERVACIONES

ARAZO EGOERA

IZENBURUA: “ Gustatuko al litzazuke zure seme edo alabaren genoma ezagutzea? “

GAIA : Ugal aparatua

MATERIA: Anatomia

MAILA : 1. Batxilergoa.

Testuingurua: Etorkizun hurbilean gurasoek ume jaioberrien genoma ezagutu ahal izango dute. Jarraian, gai horrekin lotutako arazo bati erantzuna ematen saiatuko zara; horretarako, behean planteatutako jarduerak eta adierazitako ataza burutuko dituzu.

Arazoa. Demagun ume bat izango duzula eta medikuek jaioberriaren genoma sekuentziatzeko aukera ematen dizutela. Horrek esan nahi du umearen mapa genetikoa egingo dela eta horrek argituko duela umeak gaixotasun heredagarriren bat izan dezakeen eta helduaroan gaixotasun genetikoak izateko joera izango duen.

Ataza. Txosten bat prestatuko duzu zure erabakia justifikatzeko. Horretarako, jarraian datorren gidoiari jarraituko diozu. Ondoren, gelakideekin konpartituko duzu besteen erabakiak ezagutu ahal izateko.

Jarduerak.

A. Bioetika.

- 1- Gustatuko ahal litzazuke zure seme edo alabeei buruzko informazio hori edukitzea? Zergatik?
- 2- Zure ustez, informazio hori edukitzeak zertan eragingo zuen zure umearen bizitzan?
- 3- Zure seme edo alabak helduaroan gaixotasun hilgarri bat sufritzeko aukera handia izango balu, esango al zenioke?
- 4- Emango al zenioke zure seme edo alabari informazio hori? Zergatik? Baietz izatekotan, noiz?

B. Bizitzan zehar gerta daitezkeen gaixotasunak aurreikustea.

- 1- Eskatuko al zenuke zilbor-hesteko zelulak amak jaso eta gordetzea? Zertarako?

2- Zelula amak erabiliz, zer arazo konpon litezke etorkizunean?

C. Terapia genikoa.

1- Zure seme edo alabak gaixotasun genetikoa bat izango balu, zer teknika proposatuko zانيتuzke sendatzeko?

2- Gaixotasun genetiko batzuk oso jende gutxik izaten ditu. Hori dela eta, enpresa handiek ez dute dirurik inbertitzen haien ikerketan.

- a. Bilatu gaixotasun genetiko horiei buruzko informazioa.
- b. Zer proposatuko zenuke ikerketa horiek bultzatzeko?

D. Prestatu argudio testu bat zure iritzia eta kontrakoak aipatuz eta aurkeztu zure gelakideen aurrean.